



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-06-30

VII.URTEA 1.741.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Mikel Senperena, Xabi Lasa, Jon Zubizarreta eta Iñaki Gorostidi, Larraitzen, herenegun, proba amaitu ostean. I. ARTOLA

TXINDOKIKO GAINEAN HIRUKOTEA GAIENDU DA

ABALTZISKETA Giro bikaina jarri zuen herenegun goizean lau korrikalarien apustuak; Xabi Lasak ezin izan zuen hirukotearekin 7

Laboari omenaldi hunkigarria egin diote Loatzokoek

ADUNA 150 lagunek parte hartu zuten emanaldi berezian; jende ugari hurbildu zen ekitaldira 4



Omenaldiaren une bat. DV

Lizaso da Gipuzkoako Sega txapeldun berria

TOLOSALDEA Herenegun Oiartzunen jokatu zen finalean eskualdekoak ziren segalari guztiak 2



Asteasun dantza soka egin zuten atzokoan. I. GARCIA

Sanpedroak bukatzearekin, ajea eta atsedena

TOLOSALDEA Asteasun gaur amaituko dituzte herriko jaiak, jubilatuei zuzendutako ekitaldiekin 6

Agirrebarrena aita- semeak atxilotu dituzte Bidaxunen

LIZARTZA Beste zortzi lagunekin batera atzeman zituzten atzo; gaur elkarretaratzea egingo dute 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteegunetan 09:30-20:30 / Lanurabatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emata orria:

Arabara etorbidea 53 beheko • 201400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31190 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N. A.:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Lizaso asteasuarrak irabazi du Gipuzkoako Sega Txapelketa

Sega » 1984an jokatu zuen azkenekoz norgehiagoka, eta itzuleran, garaipena lortu du; Oiartzunen jokatu zen finala igandean.

ERREDAKZIOA

Juanjoxe Lizasok irabazi zuen herenegun Gipuzkoako Sega Txapelketa. Oiartzunen, Pikoketako jokatu zen finala. Eskualdeko lau segalari aritu ziren lehia. Lizaso asteasuarra, Donostiakoa den baina Asteasun bizi den Mikel Alkorta; Arkaitz Arteaga Baliarraingoa eta Andoni Goikoetxea gazteluarra.

Lizasok denera 2.872,5 kilo belar moztuzituen eta 147,5 kiloko alde atera zion Goikoetxeari. Hau bigarren sailkatu zen. Hirugarren postua Arteagarentzat izan zen, eta honek, Lizasok baino 235 kilo gutxiago lortu zituen. Azken sailkatua, Alkorta izan zen, 456,5 kiloko alde atera zion honi Lizasok.

Juanjoxe Lizaso txapelkunak 48 urte ditu, eta bigarren urtez jokatu du txapelketa. 1984an hirugarren postuan sailkatu zen, eta aspaldian berriz, nazioarteko eran zebilen. Aurten, berriro parte hartzea erabaki zuen, eta garaipen erdieste lortu du.

Behar adina belar izan zuten segalariak, eta egoera egokian aurkitu zuten Pikoketako soroko belarra. Kiloak izan ziren arren txapelketako neurgarri, txukuntasuna ere epaitu zuten sei epaileek, eta horren arabera, Alkortari 40 kiloko penalizazioa ezarri zioten eta Goikoetxeari 20 kiloko. Lehian aritu ziren lau segalariak ez zuten jokatu aurrez sailkapen faserik. Orain dela bi aste jokatu zen Gipuzkoako Azkartasuneko Txapelketa, eta Joxe Gabirondo gailendu zen; herenegun, ordea, ez zen aritu



Oiartzunen jokaturako finalean Juanjoxe Lizaso izan zen garaile, 2.872,5 kilo belar moztu ondoren. HITZA

txapelketan. Igandeko txapelketa dagokionez, hasieratik aritu ziren aurretik Lizaso txapelketa, sailei dagokionez, berak ebaki baitzitu zen gehien, eta Goikoetxeari lehen sailkatuari dagokionez izan ezik, Lizasok erraz eutsi baitzion lehen postuari. Goikoetxea jarri zen bigarren postuan, hirugarren Alkortak jarraitu zuen eta laugarren Arteaga izan zen. Hirugarren sailean, minutu bat eta 56 segundoko alde atera zion Lizasok Goikoetxeari. Hirugarren Alkortak jarraitu zuen eta laugarren postuan Arteaga. Hurrenkera horretan jarraitu zuten, baina pixkanaka aurreratu zion Arteaga Alkortari. Azkenik, zazpigarren saila ebaki-

eta Alkortak 44 segundo gehiago behar izan zituen. Hirugarren Arteaga izan zen sail horretan eta laugarren Goikoetxea. Bigarren sailean, ordea, aldatu egin ziren gauzak lehen sailkatuari dagokionez izan ezik, Lizasok erraz eutsi baitzion lehen postuari. Goikoetxea jarri zen bigarren postuan, hirugarren Alkortak jarraitu zuen eta laugarren Arteaga izan zen. Hirugarren sailean, minutu bat eta 56 segundoko alde atera zion Lizasok Goikoetxeari. Hirugarren Alkortak jarraitu zuen eta laugarren postuan Arteaga. Hurrenkera horretan jarraitu zuten, baina pixkanaka aurreratu zion Arteaga Alkortari. Azkenik, zazpigarren saila ebaki-

» SAILKAPENA

- 1. Juanjoxe Lizaso. 2.872,5 kilo (penalizaziorik gabe).
- 2. Andoni Goikoetxea. 2.725 (penalizazio bat: 20 kilo).
- 3. Arkaitz Arteaga. 2.536,5 kilo (penalizaziorik ez).
- 4. Mikel Alkorta. 2.416 kilo (penalizazio bat: 40 kilo).

tzen 2 minutu eta 24 segundoko alde atera zion Lizasok Goikoetxeari.

EHunen bat lagun bildu ziren igandeko saioa ikusteko eta sei epaile aritu ziren lanean: Arizmendiarieta, Txertudi, Luxarba, Matxain, Beitia eta Sarasola.

Taldeakoaan Tolosa CFko neska eta mutilak Euskadiko txapelkun

Atletismoa » Espainiakoa jubenilak eta Euskadikoan kadeteak lehiatu dira; bigarren honetan oso emaitza onak lortu dituzte.

ERREDAKZIOA

Jubenilen zurupeko bakarkako Espainiakoa txapelketa jokatu zen duela egun batzuk, Motrilen (Malaga). Bertan Tolosa CF taldeko hainbat kirolari hartu zuten parte. Ane Elizegi laugarren geratu

zen 3.000 metrotan. Iker Epelde bosgarren sailkatu zen 200 metrotan. Josu Gomez 10.000 metro ibiliko proban lehiatu zen eta 5. geratu zen. Unai Arroyo, 3.000 metrotan, seigarrena izan zen helmugara iristen. Aitor Zabala berriz, 100 metroetan, 14. iritsi zen.

Xabier Leundak ez zuen zortetik ezan eta 110 herietan bi irteera txar eginda jokoz kanpo geratu zen. Lander Gilek munduko txapelketarako txartela lortzeko bidean zen 110 metro hesietan baina txapelketaren aurretik mina hartu

zen eta ez zuen lehiazterik izan. Bestalde, 400 metro hesietan eskatzen dioten gutxieneko marka egina du.

Kadeteen Euskadikoa

Gasteizen jokatu zen kadete mailako Euskadiko txapelketa, bakarka zein taldeka. Tolosa CFko kirolarien parte-hartzea izugarria izan zen. Taldeka, neska nahiz mutilak Euskadiko txapelkun izan ziren. Bakarka ere dominez eta postu onez beteta itzuli ziren.

Urrezko dominak eta Euskadi-

ko txapelkun suertatu ziren, Iñaki Artola luzeran eta 4x100 metroetan; Aitor Arraiza disko, pisua eta xabalina; Iñigo Labat eta Patxi Elosegi 4x100 metrota; Irupe Agirrezabala 100 metro hesietan; hirukoitzan eta 4x100 metrotan; Maria Ezkerro 300 hesietan eta 4x100 metrotan; Ana Garcia eta Andrea Maiza 4x100 metrotan.

Zilarrezko dominak eskuratu ziruzten berriz, ondorengo hauek: Patxi Elosegi, 100 eta 300 metrotan, eta Kepa Eizagirre pertigan. Azkenik, brontzezko dominak, hauentzat izan ziren: Sara Zozalla pertigan; Maddi Garikano altueran; Ana Garcia 100 metroetan; Andrea Maiza diskoan; Andra Riñn xabalinan eta Maialen Urretabizkaia 300 metro ibilian.

Joseba eta Ibai Agirrebarrena aita- semeak atxilotu zituzten atzo

Lizartza » Gaur 20:00etan elkarretaratzea egingo dute herriko plazan, atxiloteta hauek salatu asmoz.

ERREDAKZIOA

Lizartzako Joseba eta Ibai Agirrebarrena aita- semeak atxilotu zituen atzo goizean, Frantziako Poliziak Bidaxunen (Nafarroa Beherea).

Beste zortzi lagun ere atxilotu zituen poliziak Ipar Euskal Herrian eta euren etxeak miatu zituzten. Hauek dira gainontzeko atxilotuak: Marco Delizy, Txomin Catalogne, Eki Erramundegi, Gilen Goiti, Harri Idoate, Eneko Etxegarai, Orkatz Arano eta Ariz Ortino Etxebeste. Interes turistiko guneen aurkako erasoak egotzita atxilotu dituzte, antza.

Bi lizartzarren eta gainontzeko lagun atxilotetak salatzeke elkarretaratzea egingo dute gaur, 20:00etan, Lizartzako plazan.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Iruia. Osasun zentroa: 943 690720

Leizta. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbolak: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leizta): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Gaur emango diote hasiera Amaroazko Antzerki Asteari

Kultura » Maite Francoren Otso tonto-tontoak emanaldia izango da, gaur, 17:30ean; guztira sei saio izango dira.

ERREDAKZIOA

Gaur hasiko da Amaroazko Antzerki Artisauak antolatuta, Amaroazko Antzerki Astea. Antolatzaileek azaldu bezala, aurtengo emanaldi gehienak gaztetxoek zuzendutako izango dira, baina badira familia osoari nahiz helduei zuzendurikoa ere. Denera, sei saio izango dira ikusgai, eta berezitasun bezala, Amaroazko auzoan, kalean, izango dira guztiak, baina bakoitza txoko desberdinean.

Gaurko saioa umeentzako izango da. Hain zuzen ere, Maite Francok *Otso tonto-tontoak* emanaldia eskainiko du, 17:30etik aurrera. Emanaldia ikusi nahi duenak parkera geruratu beharko du ordu horreran.

Ostiralean jaialdia

Helduentzako saioak ostiralean izango dira, 23:00etatik aurrera. Aurretik, dena den, afaria antolatu dute. Hau txosnetan izango da, eta bertara joan nahi duenak Ogi Berri okindegian erosi beharko ditu txartelak, 19 euroan.

Bestalde, aurtengo ikuskizun nagusia biharkoa izango da, Nanny Cogorno argentinarrak eskainiko duen, *Lumatik*. Gainera, asteazken zehar, makilaje eta globofexia tailerrak ere izango dira.

Aurtengo Tolosandbluesek izan duen kalitatea eta harrerarekin «gustura»

Kultura » Antolatzaileek kontzertu guztiak «oso onak» izan direla, eta jaialdia urtetik urtera indarra hartuz doala diote.

IÑIGO TERRADILLOS

Bluesaren jaialdia datorren urtera arte agurtu dute, larunbatean izan ziren Otis Grand eta Stay Bluesek eskainitako kontzertuak izan baitziren azkenak. Ostegunean hasi zen jaialdiak eman duenarekin «oso gustura» azaldu dira antolatzaileak, «kontzertu guztiak oso onak izan baitira, eta harrera ere gustura egoteko modukoa».

«Oso positibotzat» jo dute, beraz, antolatzaileek aurtengo edizioa. Iñigo Martin antolatzaile taldeko kideak azaldu duenez, «esperotako maila edo kalitatea erakutsi dute gonbidatutako artista guztiak». Raimundo Amador eta Naco Goñik ostegun gauean Plaza Berrian eman zuten kontzertua izan zen jendetsuena. «Plaza gainezka zegoen, 1.500 lagun inguru zuden, espero genuena baino gehiago, beraz, ezusteko polita hartu genuen».

Jaialdiko aurtengo izarra Otis Grand zen, eta larunbatean Plaza Berrian eman zuten kontzertua «ederki» erakutsi zuela hori baieztatu du Martinek; «Kalitate handia duela ikusi zen bere kontzertuan, oso ona izan zen, eta nabari zen zazpi lagun zituztela taula gainean; 700 lagun inguruk gozatu zuten eskaini zuten emanaldi ederrea».



Kontzerturik jendetsuena ostegunea izan zen Raimundo Amador eta Naco Goñirena izan zen. I. TERRADILLOS

Ostiralean Donostiako Musika Eskolako Big Band eta Mingo & The Blues Intruders taldeen txanda izan zen. «Swing eta jazzaren inguruko abestiak izan ziren entzungai donostiarraren eskutik; kontzertu honetan, Otis Grand bera ere egon zen, eta bandako bi artista berekin hurrengo eguneko kontzertuan parte hartzea proposatu zuten, baina azkenean ez zen posible izan».

Ostiraleko bigarren kontzertua Fronton kafetegian Mingo & The Blues Intruders eskaini zutena izan zen. «Goi mailako emanaldia eskaini zuten; aurtengo sorpresa izango zela espero genuen, eta horrela izan zen, jendea oso gustura

egon baitzen; kontzertu biribila izan zen».

Bestalde, larunbat gauean, Stay Bluesen emanaldiaren ostean, jaialdia behar bezala amaitzeko, hainbat artista izango ziren Plaza Berriko taula gainera, Otis Grand, Stay Blues edota Donostiakoak, besteak beste. «Txandakatuz ibili ziren, eta zuzeneko berezia egin zuten».

«Indarra hartu duen jaialdia»

Aurtengoak izan duen harrera eta kalitatea ikusita, Iñigo Martinek argi du «bosturte eta gero indarrezte hartu duela Tolosan blues jaialdiak». Antolatzailearen ustez, norabide egokian doa ekimena, ur-

retik urtera geroz eta jende gehiago etortzen baita, eskualdetik kanpokoak ere bai, gainera.

Halaber, musikariak oso gustura egon direla nabarmendu du Martinek; «Tolosan izan duten harrera eskertu dute; guk ere euren tratua eskertu beharra dugu, musikari handiak diren arren oso gertukoak izan baitira».

Datorren urteari begira, ideiak buruan badituztela diote, «baina oraindik goiz da egitaraua zehazten hasteko».

Tolosandblueseko antolatzaileek jaialdia posible egin duten guztiak eskertu nahi dituzte, Tolosako Udala, Ezpeleta elkarte eta Fronton kafetegia, bereziki.



Elkartruke polita abesbatzen artean

MUSIKA » Tolosatik «oso oroimen ona» eraman dute Bartzelonara Els Picarols abesbatzako haurrek eta bere arduradunek. Laskorain abesbatzako abeslariak etxeetan pasatu duten asteburua gogoan izango dute: kontzertua, elkarbizitza familiar, bisitak... Ostiralean iritsi ziren Bartzelonatik, abeslari tolosarrek maiatzean egin zieten bisita itzuliz. Tolosa eta Donos-

tiako toki esanguratsuenak ezagutzeko parada izan dute, eta larunbat arratsaldean entsegua izan ostean, biak kontzertua eskaini zuten Santa Klaran, Naiara Mintegia eta Laia Jorret zuzendari zirela. Igandean bueltatu ziren Bartzelonara. Laskorainek eskerrak eman nahi dizkio Santa Klarako moja komunitateari, kontzertua egiteko emandako erraztasunengatik. HITZA

Laburrak

Izaskun Arriola dantza eskolako emanaldia

KULTURA » Izaskun Arriola dantza eskolako ikasleek saioa eskainiko dute gaur, Leidorren. Ikasturtean ikasi dutena erakutsiko dute.

Kultur tailerrekoen erakusketa Aranburun

KULTURA » Kultur tailerretako ikasleek erakusketa ikusgai dago Aranburu Jauregian uztailearen 4ra arte.

@ Zurea da hitza. Zure inguruko berriak sartzeko aukera ematen dizu *Zurea da hitza* izeneko atalak. Gure webgunean sartu behar duzu horretarako, eta izen hori daraman atalean sartu. Argazkiak sartzeko aukera ere baduzu. Eskerrak, kekak, iradokizunak ere sar ditzakezu bertan. Ostiraleroko argitaratuko ditugu www.tolosaldeko-hitza.info

Hiru kurtso eskainiko ditu Peñasal fundazioak

GIZARTEA » Soldadura, mekanizazioa (torno, fresadora, taladro edo CNC) eta ostalaritza ikastaroak antolatu ditu Peñasal fundazioak datorren ikasturterako. 16 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako dira ikastaroak, eta bakoitzak 2.000 ordu inguruko iraupena du, horietatik, 500 praktikak izango dira. Izena emateko fundazioa jo edo 943 67 61 61 edo 943 67 51 95 zehabietara deitu beharko da.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Ikaztegiatan pisua alokairuan, altzariekin. Interesatuek deitu 943 65 40 77 / 628 69 88 07 / 676 0112 60 telefono zehabietara.

Laboari omenaldi «hunkigarria» egin dio Loatzoko musika eskolak

Aduna » 150 lagunek parte hartu zuten frontoian eginiko emanaldian eta 500 ikus-entzule baino gehiago izan ziren bertan.

IMANOL GARCIA

Loatzoko musika eskolak emanaldi berezia antolatu zuen Adunan, Mikel Laboari omenaldia eginez. «Hunkigarria izan zen», azaldu du Miren Mujika Loatzoko zuzendariak. «Garrantzitsua iruditzen zaigu euskal kantagintza bultzatzea eta bereziki kantuen transmisioa», azaldu du, eta ideia horretatik abiatuta antolatu zuten omenaldia. Guztira 150 musikari, abeslari eta dantzarik parte hartu zuten frontoian egindako emanaldian. 500 lagunetik gora izan ziren ikus-entzuleak.

Loatzoko ikasleek eta irakasleek gain, eskualdeko kantujiretan aritzen diren zenbait abeslari eta mu-

sika eskolako ikasle ohiek ere parte hartu zuten. Guztira musikari donostiarren 13 abesti jo zituzten. «Horrelako emanaldi bat antolatzeko lehen aldian da», zehazten du Loatzoko zuzendariak eta emaitzerakin «oso gustura» azaldu dira. Laboaren familiarekin ere hitz egin zuten, baina abeslariaren emazteak ezin izan zuten joan kontzertura. «Pozik hartu zuten emazteak musika eskola batek horrelako omenaldia egitea», gaineratu du Mujikak.

Emanaldi-leku bezala Aduna aukeratzeak ere badu bere arrazoia. Herri txiki batean egin nahi zuten eta Loatzokoek jakin izan dute ere Laboa joan ohi zela herri inguruetara ibilalditxoak egitera, gustuko lekua zuela, beraz, «Adunako Udala eta herritarrek laguntza handia eman digute eta benetan eskertzen diegu», azaldu du Mujikak, «eta nabaritu da beraien txakro ere zerbait berezia zela omenaldi hau».



Adunako frontoian Loatzoko musika eskolak Mikel Laboari egineko omenaldiaren bi une. DV

'Kirolari Ateak Zabalik' ekimeneko parte-hartzaileentzat zozketa



Kirol jardueretako bat mahai-tenisa izan zen. HITZA

ERREDAKZIOA

Villabonako kirol elkarteek, Oladerra kiroldegia eta Udaleko Kirol Sailak kirolari ateak zabaldu zituzten hilaren 14an, igandea, kirolaren jarduera bera kaleratuz. Eguna, Villabonako kirola eta bere jarduera sustatzeko eta bertan dauden azpiegiturak ezagutzera emateko erabili zen. Ekimena Gipuzkoako Foru Aldundikoak proposaturikoa izan zen eta Villabonako herriak bat egin zuten Turinen eta Bartzelonan aspalditik ospatzen den egunarekin. *Kirolari Ateak Zabalik* lelopean burutu zen, kirol jarduera ugariren erakustaldia.

Igande horretan kirol jardueretan parte hartu zutenen artean zozketa egingo dute. Hain justu, Gaztelekua definitzeko sortu den nerabeen talde baten eskutik, Gaztelekuan bertan (hautzaindegi zaharrean). Sariak hauek izango dira: helduentzat kirol materiala erosteko bono bat, haur eta gazteentzat kirol ekintza bat (piragismoarekin lotuta) eta 11 urte baino gutxiago duten haurrentzat Eizmendiko kirol dendak emandako kirol materiala.

Itsaso Leunda: «lazkoa ez zela kasualitatea izan erakutsi nahi nuen»

Hernialde » Txirrindulariak zazpigarren postua lortu zuen pasa den larunbatean jokaturiko Espainiako Txapelketan.

I. GARCIA

Iaz txapela eskuratu ondoren, erronka berezia zuen Espainiako txapelketan Itsaso Leunda txirrindulari hernialdearrak. Leundak azaltzen duenez, «zerbait egin nahi nuen, iazko txapela ez zelakasualitatea izan erakutsi nahi nuen». Leundak lasterketako ihesaldian parte hartu zuen eta indar gehienak ere bertan utzi zituen. Azkenean zazpigarren postua lortu zuen. «Pozik nago, borrokatu nuelako eta nire aukerak baliatu nituelako», azaldu du hernialdearrak.

Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuen eta taldeak Eneritz Iturriagari laguntzeko agindua zuen. «Ez genuen margen handirik, baina gero lasterketak aurrera eginen duenean, egoera ezberdinetan



Itsaso Leunda. HITZA

aurkitzen zara», dio. Txapelketaren hasieran eraso batzuk izan ziren, baina gero lasaitasuna nagusitzen. Orduan Leundak egin zuen eraso eta beste hiru txirrindulari gehitu zitzaizkion. Horietatik Leunda eta beste batek 40 kilometro egin zituzten ihesi, baina gero Marta Vilajosanak harrapatu zuten eta ihes egin zuen, Txapelketan eskuratu. Azkeneko kilometroetan Leunda Iturriagari laguntzen aritu zen eta azkenean zazpigarren postuan amaitu zuen.

Aurtengoan ere, Tourreko tropela Kanariar irletara!

Abian da tropela.net: Tourra, sarean, euskaraz, eta sariekin...

Izen ematea doan
lehen emateko gunea: tropela.net, uztailak 4, 18:00etan

Laguntza: **hitza**

Zapato azul festan Dina Bilbao gogoan izan dute beste behin ere

Kirola » Tolosatik Ondarroara egin zuten ibilbidea txirringulariek Dina Bilbao zenaren omenezko martxan.

ERREDAKZIOA

Hamabigarren aldiz antolatu zuten pasa den larunbatean Zapato azule deitzen dioten jaia, Ondarroan. Eta halaxe azulez, urdinez, jantzita ospatu zuten ondarrutek eguna.

Tolosaldeko herritar ugari ere bertan izan ziren, Zapato azule festan, Dinamartxan parte hartzeko, Dina Bilbao zenaren omenezko txirringularitza martxan, hain zuzen ere.

205 txirringulari eta zazpi oinezko

Aurten martxan 205 txirringulari hartu dute parte. Halaber, bost ondarrutarrek eta bi mutrikuarrek modu berezi batean egin zuten ibilbidea eurekin: oinez, mendirik mendi.

Tolosatik abiatu ziren txirringulariak eta hemendik Albizturre-runtz igo ziren. Jarraian, Bidegoia-nera, eta handik Azpeitia alderako norabidea hartu zuten. Lasturren (Itziar) geldialdia eta hamaiketa-koa egin ostean, azken txanpari

ekin zioten. 14:00ak aldera heldu ziren Ondarroara eta Alde Zahar-rean sartzean txirringulariek har-rrera beroa jaso zuten; oinezko zazpi parte-hartzaileek jasotakoa are beroagoa izan zen. Irrintziek eta bolandera hotsek eztanda egin zuten herrierdian.

Dina, 1997an desagertuta

Dina Bilbao 1960an jaio zen Ondarroan, medikuntza ikasketak hasi eta psikologiako aukeratu zituen ondoren. Hamabost urtez bizi izan zen Tolosan. Euskarazko klaseak ematen, eski monitorea eta piragua irakasle gisa atera zuen bizimodua.

Bere kirol ibilbideagatik egin zen ezaguna Euskal Herrian, baina berandu ekin zion lehiaketeki, 20 urteak pasata. Emakumeak ia ez zuten lekurik kirolean, ezta bizitza publikoan oro har. Horregatik aitzindari izan zen Dina, hainbat emakume kirolari gazterentzat erreferentzia. Iraupen eskian eta txirringularitzan eman zituen lehenengo urteak, eta ondoren triatloian aritu zen. Kirola aitzakiaz hartuta munduko hainbat eskualde ezagutu zituen: Laponia, Groenlandia eta Alaska eskiz, Ipar Amerika eta Eskandinavia bizikletaz... 1997ko San Joan bezperan Karibeko uretan desagertu zen, Iñigo Rossekin batera.



Bost ondarrutarrek eta bi mutrikuarrek oinez egin zuten ibilbidea. LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA

arantzazu

bila dabilzan pertsonentzat - santutegia, kultura eta natura

ezagutu Arantzazu gaur uste duzuna baino gehiago da

www.arantzazu.org

Erdi eta Goi Mailako Zikloak

 **cebanc**

**Matrikula
Zaitzez!**

Merkataritza
eta Marketing
Administrazioa
Dietetika
Informatika
Ostalaritza eta Turismoa



Irabazi bi pertsonentzako Bidai bat Mallorca-ra

Informazio gehiago gure Webgunean

Benio Pasealekua, 50 - 20018 Donostia - San Sebastián - Tfn: 943 31 69 00
www.cebanc.com

ingeniaritza
imh

IMH Ingeniaritza Eskola

Oraindik ezagutu gabe?
Elgoibarko unibertsitate mailako ikasketak:

IMH Ingeniaritza Eskola:

Goi-mailako zikloaren ondoren
IMHko ingeniaritza ikasi eta lan eginez aldi berean

Ate irekiak:

Uztailak 1: arratsaldeko 18:00etan

IMH Ingeniaritza Eskola - Azkue auzoa, 1 - 20879 Elgoibar - Tfn: 943 74 82 64 - ingeniaritza@imh.es
www.imh.es/ingeniaritza-eskola

Atsedena sanpedroen ondotik

Jaiak » Gaur bukatu dira San Pedro Jaiak eskualdean eta orain, Karmenak arte, atsedena hartzeko aukera izango da.

ERREDAKZIOA

Udara aurrera doa eta baita herrietako jaiak ere. Gaur sanpedroak amaituko dira eta datorren astean Tolosako Iurre auzoan eta Alde Zaharrean sanferminak ospatzeko ekintzak izango badira ere, Karmenak arte atsedena hartzeko aukera izango da eskualdean.

Pasa den asteburuan Leaburun, Areson eta Urkizu auzoan izan dira festak, atzo bukatu zirenak, hain zuzen. Asteasun, ordea, gaurkoa izango dute jaien azken eguna, Jubilatutako Eguna, hain zuzen.

Aipatutako gainontzeko herrietan, jai giroa izan da nagusi asteburuan zehar. Urkizun, esate baterako, igandean azken 30 urteetan auzoko alkate izan den Pello Ezeizari omenaldia egin zioten bere lana eskertzeko. Ezeizak ez zekien ezer eta oso une hunkigarria izan zen.

Leaburun larunbateko herri afaria baino lehen urteroko herriko Andoni Otegi euskal presoari bidaltzeko argazkia ateratu zuten. Ondoren, Otegi Cacereseko espetxetik bidaltzeko bertsua ere bota zuten, non besteak beste, herriko euskal presoan alde jasotako 140 sinadurak eskertu zituen hitz hauekin: «Eta nahinuke eskertzen jakin/ehundaberrogei sinadurakin/akordatuta bihotz beratu/zaretelako gurekin».

» ASTEASUKO EGITARAUA

Gaur, Jubilatuen Eguna

- **11:00.** Meza.
- **Ondoren.** hamaiketakoa.
- **13:00.** Herri kirolak: aizkolariak (Jokin Alkizalete, Joseba Otaegi, Ugaitz Mugerza eta Ander Erasun) eta harrijasotzaileak (Aimar Irigoien eta Izeta II).
- **14:30.** Jubilatuen bazkaria Telleria eta Zeberio bertsolariekin eta Xapre eta Zaharra trikitalariekin.
- **18:00.** Herriko dantzariak.
- **19:00.** Laketekin erromeria.



Asteasun hamaiketakoa egin zuten atzo, meza nagusia eta gero. I. GARCIA



Urkizun azken 30 urteetan alkate izandako Pello Ezeiza omendu zuten. HITZA



Leaburun, atzo, umeen jolasak izan zituzten txokolatada egin aurretik. I. GARCIA



Leaburun urtero Andoni Otegiari bidaltzeko argazkia ateratzen dute. HITZA



Telefonica Azuleko kideak, Fernandez ezkerrean dagoela. VOLVO OCEAN RACE

Hirugarren egin du Telefonica Azul ontziak

Ibarra » Igandean amaitu zen Volvo Ocean Race Bela Txapelketa eta Xabi Fernandezek ontziak podiumean egotea lortu du.

ERREDAKZIOA

Itsasoan bederatzitako hilabete eman eta gero amaitu da jada Volvo Ocean Race bela txapelketa. Alacantik (Herralde katalanak) ateratu ziren zortzi ontziak pasa den irailan eta 37.000 milia eta gero munduari bira eman eta San Petersburgora (Errusia) igandean iritsi ziren.

Azkenean txapelketa Ericsson 4 ontziak irabazi du, Torben Grae-lek zuzendutakoa, hain zuzen. Bigarren postua, aldiz, Pumarentzat izan da eta hirugarren postua Telefonica Azulek eskuratu du.

Kostako estropaden ontzi onenaren saria

Telefonica Azul ontziko gidariak Bouwe Bekking eta Iker Martinez izan dira bederatzitako hilabeteetan eta besteren artean, Ibarra Xabi Fernandezek osatu du tripulazioa. Telefonica Azulek hirugarren postuarekin batera kostako estropaden ontzi onenaren saria ere jaso du. Ericsson 4 ontziak 114,5 puntu lortu ditu sailkapen orokorrean, Puma 105,5 eta Telefonica Azulek 98.

Xabi Fernandez ibartarra pozik ageri zen igandean txapelketan egindako lanarekin, nahiz eta ez zuten prestaketarik onena izan: «Argi dago egokiena ez dela Olinpiar Jokoetatik iritsi eta segituan Alacantara joatea. Entzun izan dugu gure prestaketa Telefonica Taldea bezala ez zela egokiena. Egia esan ez da txarra izan ere, baina zenbait faktore ez dira ondo ateratu. Nire ustez Iker eta biak berandu iritsi izana taldeari eragin dio, nahiz eta gainontzeko taldekideek lan asko egin zuten. Guk, hala ere, beste zenbait kontu eskaini ditugu, baina ez da egokiena izan, pena izan da».

Ericsson 4

Gainontzeko ontziek txapelketan egindako lanaren inguruan Fernandezek Ericsson 4 ontzi irabazteko «oso gogor» aritu dela esan zuen. «Bigarren postua eskuratzeko borrokan guk irabazi behar genuela uste dut. Zaila da aurreratzeko beste Volvo Ocean Race txapelketa bat egingo dugun ala ez. Iker eta biok Londres 2012an egoteko erabakia hartu dugu. Volvo Ocean Race erabaki duen data aldatuta honek asko kaltetuko digu eta txapelketa bateko beste bakarrik egin ahal izango dugu. Volvoa ekainean bukatuko da eta Olinpiar Jokoak 2012ko abuztuan hasiko dira», argitu du Fernandezek.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Txindokiko gaina hirukotearentzat izan da ia hiru minutuko aldearekin

Abaltzisketa » Lau korrikalariak giro bikaina jarri zuten maila handiko saioa eskainiz; gakoak bigarren tramoan egon zen.

NEREA URBIZU

Hirukotea izan da azkenean indartsuena: Txindokira Xabi Lasa eta Iñaki Gorostidi iritsi ziren, baina azken honek zapaldu zuen aurretikontorra. Hiru suziri botabehar zituzten hirukoteak irabaziz gero. Baina suziri baten eta besteen arteko denbora tartak behar zuden ikusleentzat luzeegiak izan ziren eta momentu batean Xabi Lasak irabaziko zuela pentsatu zuen batek baino gehiagok. Ez zekiten Lasa ote zen irabazlea edo hirukotea. Hori bigarren suziriari argitu zuen.

Hirukoteak 51 minutu eta 18 segundotan egin zuen sei kilometroko ibilbide gogorra eta Xabi Lasak 54 minutu eta 2 segundo behar izan zituen. Otsailan esan zuten moduan, ordubate baino gutxiagoan egin dute lau korrikalariak.

11:00etan puntuan atera ziren korrikalariak. Lehengo tramo bateratsu bukatu zuten bi korrikalariak (Mikel Senperena eta Xabi Lasa), hirukoteak errelebo hartu behar zuten lekura denbora berdin-berdinean iritsiz. Bigarren tramoan Jon Zubizarreta hirukoteko korrikalariak tarte pixka bat atera zion bakarri.

Jonek esan bezala «guztia eman nuen; Xabi egia esan ez nuen ikusi espero bezain sendo eta pentsatu nuen ahalik eta azkarren joan be-



Mikel Senperena, Xabi Lasa, Jon Zubizarreta eta Iñaki Gorostidi (semea ondoan) Larraitzen, proba bukatuta. IÑAKI ARTOLA

harko nintzela, hori aprobetxatzeko. Xabiren betealdia aprobetxatu nuen». Honen ondorioz, «nire marka hobetu nuen. Normalean ia 22 minutuan egiten nuen niri zegokidan tartea baina herenegun 20 minutu eta 50 segundotan egin nuen».

Hirugarren eta azken zatian hirukoteko korrikalariak, Iñaki Gorostidik aurre hartu zion Xabiri. «Iñaki ere ehuneko ehuneko zegoen: hasi aurretik 20 minutuko bereketa egin zuen».

Mikel Senperena Xabirekin batera atera zen Abaltzisketatik eta Xabiren erritmoa jarraitu nahi izan zuen: «Oso erritmo azkarra jarri zuen Xabik eta Senperenak ez zuen gutxiago izan nahi». Erreleboaren lekuan, Jon Zubizarreta ukitu eta lurrera joan zen gaztea:

«Nekea alde batetik eta bestetik nerbioak ziren. Beheko tramoan alde handiagoa ateratzea espero genuen gainera»...

Txindokin argazkia ateratzea espero zuten lau korrikalariak baina azkenean Larraitzen elkartu ziren eta han atera zituzten.

«Gakoa bigarren erreleboan»

«Hasiera-hasieratik nahi nuen gaztea (Mikel Senperena) kastigatu, eta Abaltzisketatik Larraitzera bidean dagoen aldatuaren haren zankada moztu. Ez nuen lortu», zioen Lasak eta «erabaki nuen bere atzetik joate. Larraizko langan sei bat segundoko alde ateratzen zidan. Baina aurreraxeko, 50 bat metrora, konturatu nintzen ez zihola ondo, oinez zihola, gonbitoka jota zihola».

Bigarren erreleboakoa, «Jon oso bizi atera zen, eta aurreneko 400 bat metroan erritmo oso-oso bizia jarri zuen». Oriako iturrirabidean alde moztan ari zela konturatu zen, eta iturrira «30 bat segundoko alde-ede ateratzen zidaten. Apustuarengakoa bigarren erreleboan egon zen, eta aurretik ere esaten nion nik Joni, berak zuela apustuaren giltza. Eta hala izan zen, «hark diferentzia kendu zidan, eta gero eusten joan zen».

Azken erreleboan, «nire terrenon, alde kendu zidaten». Alda-panda handietan, hobeto ibiltzen da

Lasa, «baina proban nahiko beteta nihoan. Hantetan-eta kalan break ere bai, hego-haizea batere freskurarik gabe. Hala ere, horiek ez dira aitzakiak, apustuaren eguna jarri genuenean garbi bainekien posible zela oso bero handia egitea».

Lasak gogoratu zuen ez zuela uste horrenbesteko denbora egingo zutenik, «oso denbora ona egin zuten. Ni nire lanarekin ere konforme geratu naiz. Entrenamenduetan 53 minutuan igo izan dut, eta atzo 54 minutu pasabehar izan nituen. Erronka joan zen bezala ikusita, gustura».

Bestela, «oso giro ona egon zen, eta hirukotea zoriondu, gorapatu eta egindakoa errekonozitu egin behar da». Argi dagoena da lauek ere, giro ederraz sortu zutela Larraitzen.

Jendetza elkartu zen Abaltzisketa inguruan, batzuk Xabi animatzeko, beste batzuk hirukotea, eta gehienak lauak, giro sanoa baitzegoen Larraunarrirrean. San Pedro bezpera ospatu zuten urtero bezala Larraitzen eta honi Tolosaldea eta Goierri astindu zituen apustua gehitu zitzaion. Aparkatzeko arazoak ia izan ziren Larraitzen eta Abaltzisketan, eta Udalak hori aurreikusita, autobus txiki bat ere antolatu zuen herrigunetik Larraitzera joateko eta bertara hurbiltzeko. Jendeak eskertu zuen zerbitzu hori.

Apustuaren irabazlerik ba ote?

Askok apustuak egin zituzten, batez ere euro banakoak. Asmatzailerik izan den atzo arte ez zekiten, baina seguruenik egongo dela. Saria banatu beharko dute behintzat, beraz, adi datozten egunetan.



Ikusmin handia piztu du apustuak; Espainiako telebista ere bertan zen. I. ARTOLA

Alegiako festen aurrekoak

ERREDAKZIOA

Alegiako festetarako 15 egun inguru gelditzen dira eta jai batzordeak gauza pare bat martxan jarri ditu ordurako. Alde batetik, uztailaren 17an, ostirala, 21:00etan plazan herri afaria izango da. Txekor-jatea eta menu begetarianoa izango da aukeran (pasta eta gazta entsalada, onddo pipar bateak eta espinaka kaneloiak). Afarirako tiketak uztailaren 12ra arte eros daitezke.

Tiketak bi kolorekoak dira: urdinak, menu begetarianoa afaltzeko eta horiak txekorra afaltzeko. 20 euroan salduko dira Etxeberria, jupilatua, Eizmendi, Kafean eta Kurpil tabernetan.

Bestetik, jai batzordeak patata-tortilla lehiaketa antolatu du. Txapelketa herritar guztientzako irekia da eta izena bakarkakoan edo binakakoan eman daiteke.



Patata tortilla lehiaketa irekia izango da aurten. N. URBIZU

Lehiaketa uztailaren 16an izango da 19:00etan plazan. Izena emateko, zerrendak jarri dituzte uztailaren 11 arte jupilatuenan, Etxeberria eta Kultur Etxean. Tortilla egiteko osagaiak jai batzordeak

erabakiko ditu eta denentzat berdina izango dira. Sua eta tortilla egiteko tresnak norberak eraman beharko ditu. Epaimahiaren osaketa jai batzordeak erabakiko du eta irabazleentzat saria egongo da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 034. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Amezketak.** Bidegorria eta saneamenduko proiektuei buruzko bilera. 20:30ean balioanitzeko gela. Zalantzak argitzeko balioko du besteak beste.

Jaiak

■ **Asteasu.** 11:00etan meza, ondoren hamaiketako, 13:00etan herri kirolak (Alkizalete eta Otaegi, Mugetza eta Erasun eta Irigoien eta Izeta II.a), 14:30ean bazkaria Telleria eta Zeberio bertsolariak eta Xapre eta Zaharrarekin, 18:00etan dantzariak eta 19:00etan Laket.

Dantza

■ **Tolosa.** Izaskun Arriola dantza eskolako ikasleen ikasturte amaierako ikuskizuna Leidor aretoan.

Kirola

■ **Tolosa.** Pirinioetara irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak uztailaren 4 eta Serako, Ardiden (2.988 m) eta Bernat Barrau (2.793 m) mendiak igoz. Izen-ematea, elkarrean (Gudari 5. 943 652789, alpinouzturre@hotmail.com).

Ikastaroak.

■ **Tolosa.** Zuentzart eskulan denda, udarako eskulan ikastaroak antolatuta dituzte. Taldeak ume nahiz helduentzat irekiak daude. Izen-ematea dendan (Gernikako arbola, 4) edota 676140622.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Alkizako Barnetegian lehenengo txanda egiten ari den haur taldea; larunbatean etorri ziren Nafarroako leku ezberdinetatik. I. GARCIA

Astebete jolasean eta euskaraz

Alkiza » Herriko Barnetegian Nafarroako haurrak daude, Artelatzen enpresak antolatzen dituen udalekuean.

ERREDAKZIOA

Astebete jolasean aritu eta euskaraz egiteko aukera izatea. Horixe da Artelatzen enpresak Alkizako Barnetegian antolatzen dituen udalekuen helburua. Guztira zortzi txanda izango dira. Lehengo la-

rumbatean hasi zen eta txanda bakoitza astebete izango da Barnetegian, hau da, sei gau igaroko dituzte bertan haurrek.

Nafarroatik etortzen dira haurrak. 9 eta 11 urte bitartekoak dira eta txanda bakoitzean 45 haur inguru izaten dira. Nafarroako puntu ezberdinetan heltzen dira txanda bakoitzean. Herrialde horretako hainbat udalek bultzatzen duten ekimena da, haurrek eremu euskaldun batean oporrak igarotzeko eta aukera izan dezaten euskaraz hitz egiteko.

Ekitaldiz beteta

Jorge San Martin Artelatzeneko ki-deak eta udalekuen arduradunak ahalzaten duenez, dagoeneko 18 urte dira udaleku hauek antolatzen dituztela. «Oso positiboa izaten da», dio San Martinek. «Haurrak oso gustura egoten direla esaten dute astebete pasatu eta gero». Barnetegian badaude ere, gosaria, bazkaria eta afaria Alkizako Udalak utzitako lokal batean egiten dute.

Egun horiek «oso intentsoak» izaten direla gaineratzen du San

Martinek. Ekitaldiz josita izaten dute eguna. Jolasak, eguneko irteerak, mendira ibilaldiak... antolatzen dituzte. Atzo, eguna Donostian igaro zuen haur taldeak eta hondartza ondo aprobetxatzeko aukera izan zuten. Beste egun batean Hondarribira joango dira egun pasa. Hondartzara joateaz gain, piraguismoa ere egingo dute. Beste egunpasa bat Hernialdera egingo dute. Ibilaldiaz gain, herri horretako frontoian jolasean ariko dira. Ez dute, beraz, aspertzeko aukerarik izango.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak